

EUSKAL ELIZBARRUTIETAKO MISIOEN KANPAINA 2024

HAUR-KATEKESIA

Bide berriak Nuevos caminos



Helburuak

- Misio-balioak ezagutu.
- Gure eguneroko bizitzan misio-balioak biziz, mundua eraldatzera eramango gaituzten bideak eratu.
- Konpromisoa zehaztu.

IKUSI

Haur misiolarien kanpaina ospatetik gatoz. Orduan, *“Naizena partekatzen dut”* goiburua erabili zen. **Guztiok ditugu Jainkoak besteen artean partekatzeko eman dizkigun gaitasun eta talentuak.** Baina ni neu naizena, neure burua partekatu aurretik, geure barrura begiratu eta nolakoak garen, zein ezaugarri dugun ikusi behar dugu. Horretan saiatzeko jardunbidea aurkeztuko dizuegu.

1.- Orri-erdi bana emango diogu neska-mutiko bakoitzari.

2.- Neska-mutiko bakoitzak bere ezaugarri bat idatziko du bertan.

3.- Hau egin ondoren, zutitu eta gelan hara eta hona ibiliko dira bakoitzak bere orria eskuan duela. Taldekideren batekin gurutzatzean, honen dohain bat idatziko dute taldekide horren orrian. Gauza bera egingo dute kide guztiekin. Horrela egiteko astirik ez bada, zehaztu zenbat taldekiderekin egin.

4.- Idazten bukatu ondoren, zirkuluan eseriko dira eta lagun bakoitzak isilik irakurriko du bere orria (taldekideen ekarpenak jasotzen dituen). Lagun bakoitzak, benetan, berak uste baino dohain gehiago duela ikusiko du.

Taldean batera jar daiteke jardunbidea nola bizi izan duten, zertaz jabetu diren...

Bihotz-berritzeko, aldatzeko aldia den Garizuma-aldi honetan, Jainkoak dei egiten digu misio-bideari ekiteko eta mundu hobea eraikitzeko ditugun gaitasunez jabe gaitezen eta dohain horiek sendo ditzagun. Misiolariak har ditzakegu eredutzat.

EPAITU

JAINKOAK PERTSONEN BIDEZ HITZ EGITEN DIGU

Isilunea egin eta misiolari euskaldun baten istorioa entzungo dugu, hain zuzen ere, **Isidro Uzkudunena**.

Misiolari hau Gipuzkoako herri batean, Pasaian jaio eta Isidro deitzen zen. Mutiko sano eragina zen, alaia, bihurria, irekia, lagun ona eta abenturazalea. Hamaika-hamabi urterekin, gustuko zuen katekesia. Gustuko zuen parrokiari ikasten zuena eta ospatzen zena.

Isidro, mutil zintzoa zen, eskuzabala, beti laguntzeko prest zegoena... "On egiteko aukera zegoen lekuan, han zen bera". Bizitza osoan agertu zuen laguntzeko jarrera hori. ([ESKUZABALTASUNA](#), [PRESTASUNA](#))

Adinez nagusitu zenean, apaiz izateko prestaketari ekin zion, Jesusen antzera, besteei laguntzen eman nahi zuelako bizitza. Beste herrialde batzuetara laguntzera joatea zerabilen buruan. Edozein lekutara joateko prest zegoen ([PRESTASUNA](#), [KONFIANTZA](#))

Misiolari izan nahi zuen. ([UNIBERTSALTASUNA](#))

Horregatik, prestaketa-aldiaren ostean, Ruandara joan zen. Afrikako herrialde honetan, zailtasunak, pobretasuna, desberdintasuna..., hedaturik zeuden.

Bere adiskide batzuen ustez, Isidro erotu samar zegoen hain urruti zegoen eta hain ezezaguna zen herrialde horretara joan nahi zuelako. Beste batzuentzat, ordea, oso ausarta zen.

Agur egin zienean, zera esan zien Isidrok: *"Neure burua ez dudala heroi bezala ikusten esan nahi dizuet Ruandara misiolari noala-eta ausartzat nauzuenoi (...)* ([AUSARDIA](#)) *izan ere... "ezin da inor berdin geratu Kristorekin hartu-emana izan ondoren" (Inor ezin da berdin geratu Jesusen mezua ezagutu ondoren).*

Uste osoa zuen Jainkoarengan eta beti bere ondoan zela eta gauza guztietan lagunduko ziola sinesten zuen.

Zeukaten guztia banatzen eta zailtasun, gaixotasun eta gorabehera guztien gainetik pozik bizitzen irakatsi zion makina bat lagun ezagutu zuen Ruandan. ([LANKIDETZA](#), [ELKARTASUNA](#))

Isidrok urte asko eman zituen Ruandan eta apaiz bezala zegozkion egitekoez gainera -katekesia, eukaristiak, bisitak gaixoei, herritarren bizitza hobetzeko egitasmoak...-, gazteen heziketaz ere arduratu zen, benetan zorioneko baitzen beraien artean.

Herrialdeak gerra jasan zuen eta Isidro pobreenak, inork babesten ez zituenak, Jainkoaren kutunenak defendatzeagatik hil zen.

Jendeak gogoan du bere poza, eskuzabaltasuna, konpromisoa, azken muturreraino eraman zuen eskaintza.

Isidoren istorioaren inguruan elkarrizketan jardun

Isidrori buruz gehien gustatu zaiena azaltzeko esango diegu neska-mutikoei.

Zein irakaspen eman digu Isidrok?

Esaten dutena kontuan hartuta, Isidoren ezaugarriak aipa ditzakegu:

-Solidarioa (elkarlanean aritu, lagundu, babestu, banatu)

-Mundura irekia (munduko beste hainbat lekutan dauden eta guk ditugun aukerak ez dituzten pertsonengan pentsatu)

-Denerako prest zen Jesusengatik (prestasuna)

-Ausarta izan zen urrutiko herrialdera joanez (ausardia)

-Uste osoa zuen Jainkoarengan (fedea, konfiantza zuen)

Balio hauen inguruan elkarrizketan jardun.

EKIN (konpromisoa zehaztu)

Hasieran esan dugunez, misiolari izatea, bizi dudana eta naizena partekatzea da; hau da, prest egotea da, laguntzea, uste osoa izatea, solidario izatea, neure adiskide, senide, kideengandik... hasita

-Isidoren balio horiek, hau da, prestasuna, ausardia, elkartasuna, konfiantza eta elkarrizketan ateratako beste zenbait, gauzatzeari begira (geure etxean, geure adiskideekin, geure familian...) konpromisoa hartu. Konpromiso hori nori zuzenduta izango den pentsatuko dugu. Esate baterako, bolada txarrean den **ikaskide bati** etxeko lanak egiten **lagundu**. Jokabide horrekin, misio-bidea eratzen dihardugu, Elizbarrutietako Misioen kanpainarako goiburuak dioen bezala. Mundu hoberanzko bidean, Jesusen jarraitzaile izateko bidean, ematen diren urratsak dira.

OSPATU

Amaitzeko, abestu edo otoitz egin.

Euskal Elizbarrutietako Misioen Kanpaina

Bide berriak - Nuevos caminos



elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas

CAMPAÑA MISIONES DIOCESANAS VASCAS 2024

CATEQUESIS DE INFANCIA

Bide berriak Nuevos caminos



Objetivos

- Descubrir los valores misioneros.
- Construir caminos que nos lleven a transformar el mundo, viviendo los valores misioneros en nuestro día a día.
- Concretar un compromiso.

VER

Venimos de la campaña de la infancia misionera. El lema era: "*Comparto lo que soy.*" Todas las personas **tenemos capacidades, talentos que Dios nos ha dado para compartir con los demás.** Pero antes de compartir lo que soy, tenemos que mirar y saber cómo somos, qué cualidades tenemos. Os proponemos una dinámica para descubrirlo.

- 1.- Repartimos media cuartilla a cada niño/niña.
- 2.- Les pedimos que escriban en ella una cualidad que crean tener.
- 3.- Una vez hecho esto, se pondrán de pie y caminarán por la sala cada uno con su hoja. Cuando se crucen con un compañero/a, escribirán una virtud de éste, en la hoja que lleva ese compañero con el que nos cruzamos. Y así con todos los compañeros/as. Si no hay tiempo, definir con cuántos.
- 4.- Cuando hayan terminado de escribir, se sentarán en círculo, y cada cual leerá en silencio su hoja (con las aportaciones de sus compañeros/as). Cada persona podrá ver que, en realidad, tiene más talentos de los que pensaba.

Se puede compartir en el grupo cómo han vivido la dinámica, qué han descubierto...

En este tiempo de Cuaresma, que es tiempo de conversión, tiempo de cambio, Dios nos llama, a descubrir también otras cualidades que podemos fortalecer para hacer un camino misionero y construir un mundo mejor. Tenemos como ejemplo a las y los misioneros.

JUZGAR

DIOS NOS HABLA A TRAVÉS DE LAS PERSONAS

Hacemos un momento de silencio para escuchar la historia de un misionero de nuestra tierra: **Isidro Uzkudun.**

Esta es la historia de un misionero que nació en Pasaia, un pueblo de Gipuzkoa, se llamaba Isidro. Era un niño movido, alegre, travieso, extrovertido, buen compañero y con espíritu aventurero. A los 11-12 años, le gustaba la catequesis. Le gustaba lo que aprendía y se celebraba en su parroquia.

Isidro era un chaval generoso, desprendido y dispuesto a ayudar... "Allí donde se podía hacer el bien, allí estaba él". Esta actitud de ayuda la conservaría toda su vida. (GENEROSIDAD, DISPONIBILIDAD)

Cuando ya fue un poco más mayor, decidió prepararse para ser un cura, porque quería dedicar su vida a ayudar a los demás como Jesús. Pensaba en ir a otros países a echar una mano. Estaba dispuesto a ir donde hiciera falta. (DISPONIBILIDAD, CONFIANZA)

Quería ser misionero. (UNIVERSALIDAD)

Por eso, después de dedicar un tiempo a prepararse, por fin viajó a Ruanda. Un país de África en el que se vivía con muchas dificultades, con mucha pobreza, desigualdad...

Algunos de sus amigos pensaban que Isidro estaba loco porque quería ir a ese país tan lejano y desconocido. Otros, sin embargo, pensaban que era muy valiente.

Cuando Isidro se despidió de ellos les dijo: *"A los que me miráis como si fuera un valiente por ir de Misionero a Ruanda quiero deciros que no me considero ningún héroe (...) (VALENTÍA) es que..."Nadie puede permanecer como antes después de un contacto con Cristo" (Nadie puede quedarse igual que antes, después de conocer el mensaje de Jesús).*

Tenía una gran confianza en que Dios estaba a su lado, que le ayudaría en todo.

En Ruanda conoció a muchas personas que le enseñaron a compartir todo lo que tenían, a estar alegres a pesar de las dificultades, la enfermedad... (COOPERACIÓN-SOLIDARIDAD)

Isidro vivió muchos años en Ruanda, y además de las tareas que tenía como cura: como la catequesis, las eucaristías, las visitas a las personas enfermas, los proyectos para mejorar la vida de la gentes, se dedicó también a la educación de los jóvenes y era muy feliz entre ellos.

El país sufrió una guerra e Isidro murió por defender a los más pobres a los que nadie defendía, a los preferidos de Dios.

La gente recuerda de él su alegría, su generosidad, su compromiso, su entrega hasta el final!!!

Diálogo sobre la historia de Isidro

Se pide a las niñas y niños que digan lo que más les ha gustado de Isidro.

¿Qué podemos aprender de Isidro?

A partir de lo que expresen se puede decir que Isidro era:

-Solidario (colaborar, ayudar, apoyar, compartir)

-Abierto al mundo (pensar en las personas que están en otros lugares del mundo y que no tienen las mismas oportunidades que nosotros)

-Estaba dispuesto a todo por Jesús (disponibilidad)

-Era valiente al irse a un país lejanos (valentía)

-Confiaba en Dios (tenía fe, confianza)

Se dialoga sobre estos valores.

ACTUAR (concretar un compromiso)

Como decíamos al inicio, ser misionero, ser misionera es: compartir lo que yo vivo y soy. Ser misionero/a es estar disponibles, ayudar, confiar, ser solidaria/o comenzando por mis amigas y amigos, mi familia, mis compañeras y compañeros...

-Pensar un compromiso en el que podamos poner en práctica (en nuestra casa, con nuestros amigos, con nuestra familia...) esos valores de Isidro: la disponibilidad, la valentía, la solidaridad, la confianza, y otros que hayan salido en el diálogo. Lo haremos pensando hacia quién va dirigido el compromiso. Ejemplo: (compromiso de **ayudar** con los deberes **a un compañero/a** que lo está pasando mal). Al hacerlo estamos construyendo un **camino misionero**, como dice el lema de la campaña de Misiones Diocesanas. Son pasos en el camino hacia un mundo mejor, un paso para ser seguidores y seguidoras de Jesús.

CELEBRAR

Podemos terminar con un canto o una oración

Euskal Elizbarrutietako Misioen Kanpaina

Bide berriak ~ Nuevos Caminos



elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas